

# Ainhoa

Aurkia Garaialde

Astigarraga, 1972

***Musikarekin zein bere herriarekin konprometitua. Txikitatik musikarekiko eduki duen pasioak bideratu du bere bizitza, eta Norberto Almandoz Musika Eskolako partaide da hastapenetatik.***

***Comprometida con la música y su pueblo. La pasión por la música que ha sentido desde pequeña ha encaminado su vida, y es parte de Norberto Almandoz Musika Eskola desde sus inicios.***

**Ikus sintesia bideoan**  
**Ver síntesis en vídeo**



Ainhoa Astigarragan jaio zen 1972ko abuztuaren 2an. Lehen urtea Ikastolan egin zuen, eta ondoren, Astigarragako Regina Apostolorum eskolan jarraitu zituen bere ikasketak: **«Gure auzoko jende guztia [...] (eskola) Astigarragan bertan zegonez harea juden ginan».**

Bi ahizpen artean zaharrena, txikitatik musikak bideratu du bere bizitza. 7 urterekin hasi zen eskusoinua ikasten: **«Goatzenaiz amak esan ziala behin, "Gustatuko litzaizuke eskusoinua ikastea?" Nik enekin zer zan [...] Badirudi nere aitonari, amaren aitari, asko gustatzen zitzaiola».** Astigarragan musika eskolarik ez zegoenez, Donostiara joan behar izan zen. Bertan bi aukera zeuden, kontserbatorioa edo akademia partikularrak. Orduan, Ainhoaren familiak erabaki zuen Miguel Bikondoaren akademiara joan zedin eskusoinua ikastera: **«Egiten zitzaidan errex, gustukoa».**

Astean behin joaten zen akordeoia ikastera: **«Zian kabinak, sartzen zinan eta zu zeunden hor ikasten eta tarteka irakaslea etortzen zan, eta iten zun pasa batetik bestea [...] Igual eoten ginan 2-3 ordu han».** Instrumentuaz gain, musika hizkuntza ikastera ere joaten zen. Urte gutxiren ostean, irakasleak kontserbatoriora aurkeztea proposatu zion ikasle libre moduan. Hau da, prestaketa akademian egin behar zuen eta ekainean azterketak egiten zituen kontserbatorioan. Horrela, 14 urterekin, OHOk (Oinarriko Hezkuntza Orokorra) zortzigarren maila Astigarragako eskolan bukatu zuenerako, eskusoinu zein musika hizkuntzako ikasturte guztiak gaindituak zituen, eta ondorioz, musikako erdi maila lortu zuen.

Ondoren, Usandizagara joan zen bere ikasketekin jarraitzeko. Bertan BBB (Batxilergo Bateratu Balioaniztuna) egin bitartean, kontserbatorioan musikako goi maila lortzeko beharrezkoak ziren ikasgai osagarriak egin zituen, eta horiek, 18 urterekin bukatu zituen: **«Nik suertea eduki nun [...] Kontuatzeako ni ya neon egiten gustukoa neukana txikitatik [...] ez zitzaidalako ezer gehio gustatzen».**

Garai hartan musikari gutxi zeuden; hortaz, gutxinaka herriko ekitaldietan parte hartzeko eskatzen hasi zitzaizkion: **«Eskolan ya bazekiten ni ai nintzala ikasten soinua, eta zerbait zegoniam, mezaren bat edo, klaro kapilla ta dana zeon han, ba juden nitzan eskusoinuarekin [...] Astiarrako ekitalditan parte hartzen nun ere: Xaguxar, Astigar... [...] Ordun ya betidanik izan naiz "Susana la del acordeon", ya beti euki det lotura hori, txiki-txikitatik».**

Ainhoa bere ibilbidea samurra izan dela oititzen du, lehen ikaslea etxera joan zitzaien klase eske, eta horren ondoren beste hainbeste: **«16kin hasi eta 21 arte, etxean ematen klaseak bost urtez, eta hor nezkan 30 ikasle edo».**

Ondoren, 21 urte zituela Astigarragako guraso batzuen ekimenez musika eskola sortzear zegoela, telefonoz deitu eta proiektuaren parte izateko gonbidapena egin zioten. Berak, noski, baiezkoa eman zuen. **«Ez zegon sede bat, Kultur Etxe Zaharrera juden ginan, han utzi ziguten gelatxo bat eta armairu bat gordetzeko akta liburua eta gutxi gehio».** Gutxinaka, irakasleak topatzen joan ziren eta zuzendaritza batzordeko postuak bete zituzten lan sozietatea osatzeko: **«Egiten genun dana danon artian,**

**baino zan paperetan zer edo zer jarri behar zalako».** Hasieran 4 irakasle besterik ez zeuden, eta taldearen gehiengoa emakumezkoa zen.

Gauzak horrela, 1994. urtean Norberto Almandoz Musika Eskola (NAME) sortu zen. Une horretan, Ainhoak bere ikasle guztiak musika eskolara aldatu zituen: **«Partikularrak utzi nitun eta zentratu nitzan musika eskolan».** Geroztik, bertan lanean dirau, oraingoz 30 urtez. Irakasle izateaz gain, zuzendaritza batzordeko kide zein beste instrumentu batzuetako ikasle ere izan da, eta erretiratu arte bertan irakasten jarraitzeko asmoa du. Eskusoinuaz gain, trikitixako eta panderoko irakaslea ere bada, eta une honetan, bera da hastapenetatik dirauen irakasle bakarra.

Eskolak harrera ona izan zuen herrian, hainbat ikaslek izena eman zuen. Lehen kontzertuak eskola azpian zegoen kaperan egiten zituzten eta lehen Musika Eguna *Santiagomendiko Baselizan* egin zuten: **«Imaginatuz gu ikasle guztik igotzen kotxetan [...] Klaro eta instrumentuak, eta dena».**

Ainhoa urte luzez bizi izan da Astigarragatik kanpo, hasieran ez zuen herrian bizi nahi: **«Agobiatu nitzan bakarrik pentsatzen».** Dena den, aukera eduki zuenean eta bere buruarekin borrokatu ostean, Astigarragan bizitzeko apustua egin zuen: **«Eta gaur arte, zorientsu naiz [...] Zu zoaz kaletik eta zea pertsona bat, ba, zerbait ari dana egiten herriaren alde, eta jendeak ere eskertzen du».**

Musikaz girotu nahi izan den herriko ekitaldi zein festa guztietan hartu du parte beti. Musika hizketagai dugunero, Ainhoa Aurkia erreferente da herrian: **«Jendeak bazekien nik jotzen nula, ba, etzea jungo ondoko herrira (musikari bila)».** Gainera, bere ikasleei ere herriaren aldeko konpromezu hori irakatsi nahi izan die, haiek ere parte hartzera gonbidatuta. Herrian elkarte gutxi daude eta bakoitza bere aldetik joan baino, denak elkarlanean ari beharko luketela dio Ainhoak: **«Izango gea 6-10 talde, ez daude gehio, ordun holakotan elkartu behar gea [...] eta polita da [...] Azkenian danok gea herria eta horrek egiten du aberastu [...] denek irabazten degu».**

Gaur egun, igandetan elizan organoa ere jotzen du: **«Jotzen zunak ya ezin zula, eta klaro, nik organoa como que ni idea [...] eta esan nun, "bueno ba probatuko det". Ba 7 urte in ditut ya, eta jarraitzen det»** 2025a 8. urtea izango litzateke. Horrez gain, Bapo Taldean ere parte hartzen du, herriko beste musikari batzuekin batera, orain dela 10 bat urtez geroztik. Kantutegi bat sortu zuten, eta urtean behin, bazkari edo afari girotu bat antolatzen dute Petritegi Sagardotegian: **«Kantatzea gustatzen zaion jendeari, ba, aukera dakala herrian, holako gauzetan gustatzen zait parte hartzea ahal badet».**

Ainhoak ezetz esatea kostatzen zaiola onartzen du, hala ere: **«Esan behar badet esaten det, baina nere tendentzia beti da predispuesta».** Bere lana oso gustuko du: **«Nere lanari lotuta [...] Geroz eta gehiago, nere herriari ere lotuta [...] Esaten det incluso, jubilatzen naizenean, kanpandorrera iritsi ahal banaiz, jarraituko detela herriaren alde zerbait egiten, eta hori oso polita da».**

Bukatzeko, zera dio: **«Zorioneko sentitzen naiz Astigarragan, eman det asko baina ere jaso det asko»**. Ainhoak herri bateratu baten alde dihardu borrokan, elkarlanean zein parte-hartzean oinarrituta: **«Nik nahi det atzetik datozenak ya eukitzea panoramika hori, herri bat bezela, danok batea»**. Horretarako, edozein arlotan parte hartzen duten eta herria eraikitzen duten pertsona erreferenteak edukitzea ezinbestekoa da, Ainhoa bezalako pertsonak.

Lehen *“Susana la del acordeón”* moduan ezagutzen bagenuen ere, orain *“Ainhoa musika eskolako”* da. Astigarragan zein inguruko herrietan musika munduan denoi ezaguna egiten zitzaigun Susana eta egun Ainhoa, bere ikasleentzat zein herritarrentzat erreferentziatzko pertsona izatea lortu duelako. Harekin kointziditu duten pertsona guztiengan eragin duenaren seinale.

Ainhoa nació en Astigarraga el 2 de agosto de 1972. Cursó su primer año en la Ikastola y, después, continuó sus estudios en el colegio Regina Apostolorum de Astigarraga: **«Toda la gente del barrio [...] (el colegio) estaba en Astigarraga mismo, así que íbamos todo ahí»**.

La mayor de dos hermanas, la música ha encaminado su vida desde pequeña. Comenzó a estudiar el acordeón a los 7 años: **«Recuerdo que una vez mi madre me dijo: “¿Te gustaría aprender acordeón?” Yo no sabía lo que era [...]. Al parecer, a mi abuelo materno le gustaba mucho»**. Como no había escuela de música en Astigarraga, tuvo que ir a Donostia, donde había dos opciones: el conservatorio o academias particulares. La familia de Ainhoa decidió inscribirle en la academia de Miguel Bikondoa, para aprender a tocar el acordeón: **«Se me hacía fácil, me gustaba»**. Iba una vez por semana a clase de acordeón: **«Había cabinas; entrabas y estabas allí estudiando, y de vez en cuando el profesor venía, pasaba de una cabina a otra [...]. Igual estábamos allí 2-3 horas»**. Además del instrumento, también estudiaba lenguaje musical. Tras pocos años, su profesor le propuso presentarse como alumna libre al conservatorio. Es decir, hacía la preparación en la academia y se presentaba a los exámenes del conservatorio en junio. Así, a los 14 años, para cuando terminó 8.º de EGB (Educación General Básica) en la escuela de Astigarraga, ya había superado todos los cursos de acordeón y lenguaje musical, alcanzando así el grado medio de música.

Después, continuó sus estudios en Usandizaga. Mientras cursaba BUP (Bachillerato Unificado Polivalente), completó las asignaturas complementarias necesarias para el grado superior de música en el conservatorio, que finalizó a los 18 años: **«Tuve suerte [...] Para cuando me di cuenta ya estaba haciendo lo que me gustaba desde pequeña [...] No me gustaba nada más»**.

En aquella época había pocos músicos, así que poco a poco empezaron a pedirle que participara en los eventos del pueblo: **«En el colegio ya sabían que yo estaba**

**estudiando acordeón, y si había algo, como una misa, claro, como había capilla y todo, pues iba con el acordeón [...] También participaba en los eventos de Astigarraga: Xaguxar, Astigar [...] Siempre he sido "Susana la del acordeón", siempre me han relacionado así, desde bien pequeña».**

Ainhoa recuerda que su trayectoria fue sencilla. La primera persona que recibió sus clases fue a su casa a pedírselas, y después llegaron muchos más alumnas y alumnos: **«Empecé con 16 años y hasta los 21, di clases en casa durante cinco años, y tenía unos 30 alumnos».**

Después, a los 21 años, por iniciativa de unos padres de Astigarraga, estaban por crear una escuela de música, y le llamaron por teléfono para invitarle a ser parte del proyecto. Ella, por supuesto, aceptó. **«No había una sede; íbamos a la Kultur Etxe Zaharra, donde nos dejaron una pequeña sala y un armario para guardar el libro de actas y poco más».** Poco a poco fueron encontrando profesoras y profesores y llenando los puestos de la junta directiva para formar la sociedad laboral: **«Hacíamos todo entre todos, pero de alguna forma había que rellenar el papeleo».** Al principio, solo había 4 profesores, y la mayoría eran mujeres.

Así, en 1994 se fundó Norberto Almandoz Musika Eskola (NAME). En ese momento, Ainhoa trasladó a todos sus alumnos y alumnas particulares a la escuela de música: **«Dejé las clases particulares y me centré en la escuela de música».** Desde entonces, lleva trabajando allí 30 años. Además de profesora, ha sido integrante de la junta directiva e incluso alumna de otros instrumentos. Tiene la intención de seguir enseñando allí hasta jubilarse. Además de acordeón, también enseña la trikitixa y el pandero, y actualmente es la única profesora que sigue en la escuela desde su fundación.

La escuela tuvo una buena acogida en el pueblo, y varias alumnas y alumnos se inscribieron. Los primeros conciertos se celebraban en la capilla situada bajo el colegio, y el primer Día de la Música se realizó en la Ermita de Santiagomendi: **«Imagínate, nosotros subiendo en coches a todos los alumnos [...] Claro, con los instrumentos y todo».**

Ainhoa ha vivido muchos años fuera de Astigarraga; al principio no quería vivir en el pueblo: **«Solo de pensarlo, me agobiaba».** Sin embargo, cuando tuvo la oportunidad y tras debatir consigo misma, decidió apostar por vivir en Astigarraga: **«Y hasta hoy, soy feliz [...] Vas por la calle, y eres, pues alguien que está haciendo algo a favor del pueblo, y la gente también lo agradece».**

Siempre ha participado en los eventos y fiestas del pueblo que se hayan querido amenizar con música. Cada vez que se habla de música en el pueblo, Ainhoa Aurkia es un referente: **«La gente sabía que tocaba, así que no iban a buscar (a otro músico) en el pueblo de al lado».** Además, también ha intentado transmitir este compromiso con el pueblo a su alumnado, animándoles a participar. En Astigarraga hay pocas asociaciones, y Ainhoa opina que, en lugar de ir cada una por su lado, deberían colaborar todas juntas: **«Seremos 6-10 grupos, no hay más, así que en estas cosas**

**tenemos que unirnos [...] es bonito [...] Al final todos somos el pueblo, y eso lo enriquece [...] Todos ganamos».**

Actualmente, los domingos toca el órgano en la iglesia también: **«Quien lo tocaba ya no podía, y claro, yo no tenía ni idea de órgano [...] Y dije, "bueno, lo intentaré". Llevo ya 7 años, y sigo».** El 2025 sería su octavo año. Además, forma parte del Bapo Taldea junto con otros y otras profesionales de la música del pueblo desde hace unos 10 años. Crearon un cancionero, y una vez al año organizan una comida o cena musical en la Sidrería Petritegi: **«A la gente a la que le gusta cantar, pues, darle la oportunidad de hacerlo en el pueblo; me gusta participar en estas cosas si puedo».**

Ainhoa admite que le cuesta decir que no, aunque: **«Si tengo que decirlo, lo digo, pero mi tendencia siempre es estar predispuesta».** Le encanta su trabajo: **«Atada a mi trabajo [...] Cada vez más, también unida a mi pueblo [...] Incluso digo que cuando me jubile, si puedo llegar al campanario, seguiré haciendo algo por el pueblo, y eso es muy bonito».**

Para concluir, dice: **«Me siento afortunada en Astigarraga; he dado mucho, pero también he recibido mucho».** Ainhoa lucha por un pueblo unido, basado en la colaboración y la participación: **«Quiero que las nuevas generaciones tengan ya esa perspectiva, que vean en un pueblo, un equipo».** Para ello, contar con personas referentes que participen en cualquier ámbito y construyan el pueblo es imprescindible, es decir, personas como Ainhoa.

Si antes la conocíamos como "Susana la del acordeón", ahora es "Ainhoa la de la escuela de música". Tanto en Astigarraga como en los pueblos cercanos, en el mundo de la música Susana, hoy Ainhoa, es conocida por muchos. Ha logrado convertirse en referente para su alumnado y las vecinas y vecinos del pueblo, señal de que ha dejado huella en todas las personas que han coincidido con ella.